

GUKA Osteguna, 2025eko abuztuaren 7a

azkoitiaguka.eus

AZKOITIA

GUKA



FESTA, OSAGAI GOXOZ BETETA



Ondo pasau andramaixek!

www.azkoitia.eus

f i X



AZKOITIA
Udala

Loiola



- 1, 2 eta 3 logelatako etxebizitza argitsuak.
- Kalitate goreneko akaberak eta punta-puntako materialak, 50 urtetik gorako esperientzia duen talde baten bermearekin.
- Azkoitiko bihotzean etxebizitza paregabea lortzeko aukera zure eskura.

AZKEN ETXEBIZITZA SALGAI!
ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Sustatzailea/Eraikitzailea:

Saltzailea:





Inge Arriola, Azkoitiko Gazte Asanbladako kidea

Azkoitiko txosnak; hartu-emanen eredu berriak eraiki nahian

Aurten ere, andra-maixetan Azkoitiko Gazte Asanbladako kideok txosnak jarriko ditugu martxan Goiko Losan. Urtero bezala, bertako kideok ilusioz eta gogoz ekingo diogu festetako erronkari. Txosnak, jai giroko espazioak izateaz gain, asanbladarentzat eta bertan parte hartzen duten eragileentzat ezinbesteko tresna dira urtean zehar egiten diren borrokak kalera ateratzeko. Abuztu erdiko egun berezi hauetan, borroka horiek guztiak presente edukitzeari eta aldarriek beren lekua izateari garrantzi berezia ematen diogu. Izan ere, ulertzen dugu jai giroan murgilduta egon arren, ezin garela ahaztu gaur egungo gizartean bizi ditugun bidegabekeriez eta askotariko aldarrikapenez.

Zehazki, aisialdi kapitalista eta kontsumitzailetik at, hartu-emanen eredu berriak eraiki nahi dituen tokia da Azkoitiko txosnagunea. Era berean, egunerokotasunean langileria azpiratzen duten arazo zein gatazka politikoek beren eremua izango dute, izan nazioarteko egoerari dagozkion gatazkak, izan herriko langileek pairatzen dituztenak. Gainera, gure helburua parrandarako giro segurua eraikitzea denez, ez da inolako erasorik onartu-

ko txosnagunean, eta horren adibide dira festetako eguntan aktibo izango ditugun erasoen aurkako protokoloak.

Berrikuntza moduan, abuztuaren 16ari kolore berezia eman nahian gabilta. Aurreko urtean lehen aldiz martxan jarritako Gazte Eguna ospatuko dugu egun horretan. Izan ere, badugu sentipena herrian gure kuadrilletatik kanpoko jendearekin harremanak izateko espazioak falta zaizkigula. Zorritzarrez, horretarako aukera tabernetan eta gaueko parranda giroan suertatzen da kasu gehienetan. Horri erantzun bat emateko asmoz, beharrezkoa ikusten genuen herriko gazteok elkartzeko egun berezi bat izatea, elkarren interesak eta nahiak partekatzeko eta eztabaidak sustatzeko elkar-gune bat sortzea. Gauzak horrela, txosnen antolakuntzan gabiltzanok gogo bereziarekin jarraituko dugu Gazte Eguna antolatzen andramaixetan, eta espero dugu urte luzez iraungo duen egun bat bilakatzea.

Giro segurua eraiki nahi dugunez, ez da inolako erasorik onartuko txosnetan

Illo beretik, gogorarazi nahi dugu AGA espazio ireki eta parte hartzailea dela, herriko gazteok herriko gazteentzat sortua. Benetan uste dugu txosnek beren esentzia galduko dutela ez baditugu herritar guztion artean prestatzen eta antolatzen. Guztion gustuko txosnak izateko, beharrezkoa baita guztion parte hartzea eta iritzi trukea. Urtetik urtera egitarau beteagoa eskaintzen eta ahalik eta azkoitiar gehien gustuko txosnak sortzen saiatzen ari garenez, mezu honen bitartez dei egin nahi diogu herriko festak antolatu nahi dituen orori txosnetan parte hartzeko. Azkoitiko Gazte Asanbladaren Instagram kontuaren bitartez egiten ditugu deiak: astero-roko bilera irekietan parte hartzeko, aurreko egunetako txosnen muntaia egiteko, barrako txandetan parte hartzeko, pankartak egiteko...

Guztion interesetara egokitutako txosnak antolatzeko, parte hartze oro ongi-etorria izango da andramaixetan.

Antolatuz eta parte hartuz, ondo pasatu andramaixek!



orbela

JATETXEA

Aita Madinabeitia Plaza
699 29 23 62



KOXKA

TABERNA


Kale Nagusia, 92
943-85 11 96

ondo pasau andramaxek!



Andramaixek, hitz gutxi batzuetan

Ana Azkoitia, alkatea



A JEA. Festan, egunez zein gauez, biharamunik iritsiko ez balitz bezala murgiltzearen ondorioa.

B URRUNBA. Andremari jaietan saihestu ezineko testuingurua.

C GUREAN BETI ZE? Festetan, Caritasen tonbola.

D INASTIA. Abizena, pilotarien kasta. Azkoitia, pilotaren sehaska.

E LIZA. Toki sakratua eta presentzia handikoa herriko jaietan.

F ESTA ETA FAMILIA. Konpainia onean eta mahai bueltan, beti ondo! Festa: horixe, festa.

G IZALEGE. Sobran edo lekuz kanpo sekula geratzen ez den jokabidea. Jaietan ere, behar-beharrezkoa.

H AURE ETA HELDU, hil arte bizi! Erditzen eta lurperatzen gaituzten artean, garena.

I LARGIPE. Jaietan erromantizismoari hegoak emateko toki aproposa.

J ENDARTE. Beti ez bada ere, ibiltzea gustatzen zaigun espazioa.

K UADRILLA. Abuztuaren 18an itsasoak ura bezain beharrezkoa.

L AINO ETA LURRUN. Edanarekin pasatuz gero, ikusten dena.

M AITASUNA. Norbere buruarekin hasi eta besteengana zabaldu beharrezkoa.

N EURRI. Bilatzen duenak badu bertutea.

O RKESTRA. Azkoitian, Musika Banda Kontzejupean.

P LAZERA. Etengabe bilatzen duguna, zeruan ala infernuan. Festetan, goizaldeko patata frijituak?

Q GUREAN BETI Q DE QUESO. Edo *Qué de ke*.

R ERREEEE. Gaztelaniazko alfabetoko hemeretzigarren hizkia (r,R). Elhuyar dixit.

S OLOMO. Herriko edozein tabernatan tripa betetzeko eska dezakezun bokata.

T XISTU eta danbolin, jaietan gure doinu.

U RA. Festetako zapia soinean, sarritan ahazten zaiguna.

V ENUS. Erromatar mitologiaren jainkosa. Zaharregi andremarietara gonbidatzeko.

W Alfabetoko hizkirik tristenetarikoa festetan eta urte guztian. Hiztegian bi hitz eta sinonimoak: web-orri eta webgune.

X IBERERA. Azkoitiar petoa denari, ulertzea kostatzen zaiona.

Y EUSKARAZKO 'ETA' KONJUNTZIOAREN ORDEZ, aukeran gehitxo entzuten dena.

Z AINTZA eta errespetua. Andremarietan eskatzen dizuedana.





GARAJE
AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

San Joan, Axiri 13 - 20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
tailleraxiri@gmail.com • Tel. 943-85 04 11 • 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ





Eztanda eta eztanda artean, Azkoitiko doinu ezagunenak

Azkoitia musikaz blai izango da festek irauten duten bost egunetan, baina musikari lotuta, badira Andre Maria jaietako une berezi batean abesten diren bi kanta: txupinazoaren unean plazan entzun ahal izaten diren 'Azkoitia' eta 'Ama nahi dezunian' abestiak, hain zuzen ere.

ALBERDI
INMOBILIARIA

943 85 25 14

www.alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3
AZKOITIA



ALBERDI
ASESORIA

943 85 25 14

www.alberdi-asesoria.com
Trenbidearen Zumardia, 3
AZKOITIA



Kantatzen ez duenak zorionik ez du», dio Pirritx eta Porrotx pailazoen Bizitza kantu bat da abestiak. Abesti horrek dioenari jarraituz, Azkoitiko jaietan zoriontasun handia izango dela aurreratu daiteke. Izan ere, festek iraungo duten bost egunetan askotariko doinuak entzun ahal izango dira herriko kaleetan. Süne, Merina Gris edota Tapia eta Leturia taldeek kontzertuak eskainiko dituzte plazan, gaiteroen eta dultzaineroen kalejirak izango dira, batukadaz gozatzeko aukera ere izango dute herritarrek, eta erromerian dantza egiteko aukera eskainiko du Enaitz eta Erkizia bikoteak.

Horrez gain, Azkoitiko Musika Bandak ere izango du bere tarte festetan, eta badi-ra Andre Mari jaietan bereziki bereziak diren bi kanta eta une bat: txupinazoaren unean *Azkoitia* eta *Ama nahi dezunian* abestiak jotzen dituzten momentua. 2025eko andre-mariei hasiera emango dien txupinazoa azokako eragileek botako dute, eta une horretan bertan, Musika Bandak

Ama nahi dezunian kanta joko du. Jarraian, bandak, Parrokiako koruak zein Iraurgi abesbatzak lagunduta, *Azkoitia* abestia kantatuko dute plazara joandako herritarrek. Txupinazoaren bueltako ez-tanda eta eztanda artean, beraz, herriko doinu ezagunak entzun eta abestu ahalko dituzte herritarrek. Bi doinu desberdin, jatorri erabat kontrajarriak dituztenak, baina azkoitiar denek bat egitea lortzen dutenak.

Loteriaren beharra

Azkoitiko mugak igaro dituen abestiren bat baldin bada, du-darik gabe, *Ama nahi dezunian* da kanta hori. Festetako ereserki ez ofiziala, azkoitiar denek txikitatik jakiten duten kanta da, eta Azkoitiko muge-tatik haratago, azpeitiar gutxi izango dira abestia ezagutzen ez dutenak. Abestiaren jatorriari dagokionez, ordea, ezer gutxi dakite batzuek zein bes-teek. Doinua Giuseppe Verdi konpositore italiarraren *Aida* operako zati bat da, eta hitzak, berriz, parranda giroan sortutakoak. Baina zein parranda izan zen gakoa? Horixe da kontua; izan ere, herriko adineko batzuen arabera, azpei-

tiarren asmakizuna izan zen abestia.

Adineko haiek gogoratzen dutenez, sasoi batean azkoitiar hainbat Azpeitiko San Inazio jaietara joaten ziren festez gozatzera, eta zezen plazan zirela, azpeitiarrak iseka egiten hasi zitzaizkien Azkoitiko abuztuko jaietarako dirurik ez zutela izango esanez. Halaber, loteria jokatzeko deia egiten omen zieten azpeitiarrak azkoitiar haiei. Horrela sortu omen zen *Ama nahi dezunian* kanta.

Horratx, beraz, txupinazoa-rekin batera abesten den abestiaren jatorria izan daitekeena, eta hemen haren hitzak, aski ezagunak:

**«Ama nahi dezunian
jokaizu loterixe
zergatik nahi dugulako
ondo pasau, ondo pasau
andramaxek!»**

Ofiziala

Jaiei hasiera ematen dien lehen ez-tandaren ondoren, berriz, ereserki ofizialaren txanda izaten da. Azkoitiko Musika Bandak eta Parrokiako koruak zein Iraurgi abesbatzak lagunduta, *Azkoitia* abestiaren doinuak izaten dira nagusi. Miguel Mari

Azpiazu musikari azkoitiarraren kantaren atzean ere badira hain ezagunak ez diren datuak.

Ereserki ofiziala sortu aurretik beste abesti batekin saiatu zen Azpiazu: «Lehendabizi *Azkoiti* izeneko abestia sortu nuen, nire kabuz, Iraurgi abesbatza-rentzat, bertan ere ibiltzen bainintzen», gogoratu du musikari azkoitiarrak. Musika eta hitzak, biak sortu zituen Azpiazuk, eta abesbatzak pare bat edo hiru al-ditan abestu zuen arren, ez zuen ibilbide luzerik izan kanta hark: «Luzeegia eta zail samarra zen, agian, lehenbiziko abesti hura».

Handik urte batzuetara, *Azkoitia* sortu zuen, «aurreko abestiarekin alderatuz gero, erabat desberdina». Abesti haren musika Azpiazuk sortu zuen, eta hitzak, berriz, On Anastasio Albisuk idatzi zituen: «Euskaltzale amorratua zen On Anastasio, baina hitzak nik idatzi behar nituela esaten zidan. Dena den, lortu nuen berak idaztea, eta ederra gelditu zen ereserkia».

Azkoitia abestiak izan duen ibilbidea ikusita, «pozik» agertu da Azpiazu: «Ikaragarria da kanta urtero-urtero plazan entzun ahal izatea. Danborradan bezala, satisfazio handia ematen dit txupinazoaren ostean entzuten dela ikusteak, eta beste gau-

za askok baino inportantzia handiagoa du horrek niretzat».

Hona hemen *Azkoitia* ereserkiaren hitzak, On Anastasio Albisuk idatzi zituen gisan:

**«Goratu dezagun, goratu kantari
Ain maite degun gure jaioterri,
Jator ta leial betidanik izan dan
Azkoiti, - euskadiko iri ezti.**

**Ospetsu askoren sorleku zera zu
Gure biotzeko azkoiti doatsu
Munduan zear zure seme-alabak
Aundizki zaitue goraiapatu.**

**Ikusgarria ta polita zera
Izarraitz inguruko lore- guztien
loretegi;
Ormola mendian degu- urrategui
Guztion amaren kabi.**

**Euskal-erriko erro guztietan
Euskaldunena zaitugu zu, uro-
la-ko azkoiti
Sure seme ta alaben izkera
Euskera da beti.**

**Aintzineko iraurgi zaarra
Gaurko eta betikoa,
Goi-goian dago zure izarra
Zein eder, zein garbi, zein argia!
Zure izenak iraun dezan
Mendez-mende goragarria
Gaurko jokabidean zuzen:
¡Aurrera beti azkoitia!
Beti azkoitia!».**



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



ZUMARRAGA ERREPIDEA, S/N, 20720 AZKOITIA (GIPUZKOA) - 943-02 52 00



Sorpresa erraldoia

Azkoitiko Udalak herriko sei erraldoietako bat ordezkatzearabaki du, pilotarietako bat zehazki.

Andremarietako txupinazoarekin lehertuko da festa Azkoitian. Musika, algarak eta poza izango dira nagusi plazan, baina udaletxearen aurrean izango da aurtengo festetako berrikuntza nagusia: erraldoi berri bat. Hain zuzen ere, Azkoitiko Udalak sei erraldoietako bat ordezkatzearabaki du, pilotarietako bat zehazki.

Erabakia hartzeko arrazoia emakume pilotarien lana aitortzeko beharra izan dela aurreratu du Igor Isuskiza Festa zinegotziak: «Azkoitiko Udalak sei erraldoi ditu, eta haietako bik gizon pilotaria ordezkatzaren zuten. Gizon itxurakoak ziren biak, eta justiziazkoa dela uste dugu parekidetasuna bilatzea, eta bide batez, emakume pilotariaren figura balioestea, hau da, gizonaren pare jartzea. Azkoitia pilotaren sehaska dela esan ohi dugu, eta sehaskari emakumeek eutsi izan diote. Pilota munduan gizonak eta emakumeak egin dute ekarpen handia, bakoitzak egokitu zaion tokitik. Horregatik, bidezkoa da gizon eta emakume pilotariak ateratzea herriko kaleetara, biak ala biak ondoan eta bidelagun. Emakume pilotarien presentzia frontoietan indarra hartzen joan da, eta horrek bere isla izan behar du kalean ere. Berdintasunera bidean, urrats txiki bat da».

Hori horrela, Iñigo Borda artistari irudi berria sortzeko eskatu zion erakundeak, eta zeregin horretan aritu da hura azken asteetan. Bordaren eta emakume pilotaria ordezkatzeko duen erraldoiaren emaitza hilaren 14an ikusi ahal izango dute herritarrek.

Egurki
eraikuntzak



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

bpd
BEATRIZ POZO
DEKORAZIOA

Aingeru Kalea 5 - 20720 Azkoitia
943-54 08 86-669 41 40 25
deko@beatrizpozo.com



**AZPIAZU
FARMAZIA**



Nutrizioa
Dermofarmazia
Formula magistralak
Analisi kapilarra
Odol analisiak
Lobulu perforazioa
DSP zerbitzua

**ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!**



«Arrozari bueltak eman eta ez dadila erre; horiek dira, batik bat, egin beharrekoak»

Ion Alberdi, Eneko Aizpuru eta Mikel Arregi

Herri bazkariko laguntzaileak

Andre Maria festetako egun gustukoena ez dutela onartu arren, herri bazkarian laguntzen izan ziren iaz Alberdi, Aizpuru eta Arregi. Aurten ere zeregin hori izango dute abuztuaren 18ko ekitaldi jendetsuan.



Ondo pasau
Andramaixek!

Ostalaritzarako hornigaiak





KIDS&US
my English

Ingelesa urte 1etik aurrera

Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!

 Kids&Us Azpeitia
T. 717 774 567

Open day



ALTZIBERTXO
JATETXEA - TABERNA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!
ALTZIBAR ETORBIDEA, 2, AZKOITIA • 644 08 03 65



 **Ainhua**
ILE APAINDEGIA

Guardia kalea • 943-85 08 48
 **722 227 323**

ondo pasau andramaxek!

Balentziaga
NEKAZALTURISMOA

balentziaga.eus
ondo pasau andramaxek!

erregistro zenbakia: KSS00186



ondo pasau ANDRAMAXEK!

Desde 1958tik

 **alberdi**



Nolatan lagundu zenuten iaz-ko herri bazkarian? Zer-nolako esperientzia izan zen?

ENEKO AIZPURU: Nire kuadrillako bat zinegotzia da udalean, eta laguntza eskatu zigun. Esan zigun jendea behar zutela herri bazkarian laguntzeko, eta animatu egin ginen.

MIKEL ARREGI: Egia esan, ilusio handirik gabe eman genuen baiezkua, baina, era berean, onartu beharra dut espero nuena baino askoz errazagoa eta entretenigarriagoa izan zela egin beharreko lana.

Erreleboa guztiz hartzeko asmoz? Jende edota laguntza gehiago beharko zenukete?

M.A.: Aurten ere bertan izango gara laguntzen, baina ez dut uste urte askoan jarraituko dugunik.

E.A.: Batzuk urte luzez aritu dira herri bazkariarekin laguntzen, eta erreleboa hartzeko jendea behar da, baina ez dakit gu izango garen errelebo hori hartuko dugunak...

ION ALBERDI: Konpromiso handiegia da. Nik, eta niregatik hitz egiten dut, ezin dut ziurtatu urtero Azkoitian izango naizenik data horietan.

E.A.: Abuztuaren erdian dira festak, eta horrek badu eragina. Bertan bagaude, lagun dezakegu.

Zer lan eragiten du herri bazkaria antolatzeak? Nola antolatu zineten iaz?

M.A.: Udalak antolatzen du dena, eta oso ondo kudeatzen du guztia. Udal langileek esaten dute bakoitzak zer egin behar duen, zenbat denboraz... Kopuruak eta denborak oso ondo kontrolatuta dituzte. Arrozari bueltak eman eta ez dadila erre; horiek dira, batik bat, egin beharrekoak.

I.A.: Iaz oso esperientzia ona izan genuen. Txarrena da herri bazkaria festen azken egunean izaten dela, abuztuaren 18an, eta iristen garen moduan iristen gara egun horretara. Hala ere, udalekoek esaten dizute zer egin behar duzun: haragia, txorizoa eta bestelakoak moztuta ekartzen dituzte, eta beraz, guk egin beharreko lana ez da gehiegizkoa izaten. Gainera, gainontzeko pertsonekin giro ona sortzen da, eta pintxo bat hemen, pote bat han, erraz pasatzen da denbora.

E.A.: Aurreko urteetan laguntzen ibilitako pertsonak ere azaldu ziren, eta gomendioak eman zizkiguten. Dena ondo atera zedin bermatu nahi zuten.

Lan asko pilotzen al da?

E.A.: Ez da lan gehiagi izaten, baina jendea behar da: udale-

“

«Asko aldatu da giroa, garai batean jendea bazkaltzera baino gehiago, arroza botatzera joaten zelako»

«Iaz pertsona ugarik errepikatu zuten arroza, eta hori seinale ona da»

«Polita da horrenbeste jende biltzea plazan, adin desberdinetakoak gainera»

ko langileez gain, beste hamabost-hogei pertsona inguru behar dira laguntzeko.

M.A.: Bai, zortzi paella egiten dira, eta, gutxi gorabehera, paella bakoitzeko bi pertsona behar izaten dira. Baina, aurrez esan bezala, egin beharreko pauso bakoitza argi azaltzen dizute.

E.A.: Iaz banaketa momentua izan zen zoroetxea. Txartelekin etortzen dira herritarrak, denak batera, eta txartel ho-



riek adina paella platera eman behar dizkiezu.

I.A.: Egiari zor, askoz ere estres handiagoa espero nuen nik. Guztia oso ondo antolatuta egoten dela ikusi nuen. Gelditu ere egin gabe ibili beharko genuela uste nuen, estres handiagoa biziko genuela, baina espero baino askoz hobeto eraman nuen.

Festen beste alde hori, lana egin beharrekoa, ezagutzen duzuen lehendabiziko aldia al da?

I.A.: Herri guztiarentzat lan egin beharreko lehen aldia bai behintzat... Txosnetan ibili izan naiz, baina horrenbeste pertsonari zuzendutako zer-baitetan ez.

E.A.: Herri bazkarian 1.100 pertsonatik gora biltzen dira plazan. Ikaragarria da hori Azkoitia bezalako herri batentzat!

Esker oneko hitzak entzuten al dituzue?

M.A.: Kaleko jendeak esaten du zer bait; eskerrik ez digute ematen, baina esaten digute konturatzen direla lanean aritu garela.

E.A.: Ni harritu egin nintzen ohartzean zenbat pertsonak esan ziguten zer bait... Eskertu, agian, ez da hitza, baina konturatzen dira zertan aritu zaren eta esaten dizute zer bait.

I.A.: Iruzkina txarrik ez genuen entzun, eta, beraz, ondo. Gainera, pertsona ugari errepikatatu zuten arroz, eta hori seinale ona da.

Azkoitiko herri bazkaria oso jendetsua izaten da, eta askorentzat, berezia, festetako unerik gustukoena. Zuentzat ere horrela al da?

M.A.: Nik 25 urte daramatzat herri bazkariara joan gabe, baina onartzen dut herritarrentzat berezia dela. Polita da horrenbeste jende biltzea plazan, adin desberdinetakoak gainera. Gazteak nahiz 70 urtetik gorakoak elkartzeko dira.

E.A.: Bai, hori ederra da, eta sortzen den giroa ere bai.

I.A.: Asko aldatu da giroa, garai batean jendea bazkaltzera baino gehiago, arroz botatzera joaten zelako. Gaur egun ez da horrelakorik gertatzen.

Horrelako lan baten ondoren, festa handiagoa izaten al da?

E.A.: Festei azken eguna izanda, nekatuta egoten gara, eta normalean, kalera berandua aterako ginatekeen arren, herri bazkarirako prestatzera joan behar izaten dugunez, lehenago atera behar izaten dugu kalera.

M.A.: Nire kasuan, ez du gehiegi eragiten. Elkartean egiten dugu bazkaria, eta baz-

kalosteko eserialdia luzatzen da.

Zein da zuentzat festetako egunik gogokoena?

I.A.: Lehena, bigarrena, hirugarrena... Kar, kar, kar! Gu geu, garen bezalakoak izanda, abuztuaren 18a ez da bereziki gehien gustatzen zaigun eguna. Gainera, nekatuta iristen gara, eta horrenbeste pertsonarekin ez dugu, agian, hainbeste gozatzeko. Lehen, duela urte batzuk, bai gozatzeko genuen, baina adinean aurrera goazen heinean, aldatzen joan da kontua. Nik, behintzat, 14an eta 15ean une hobeak igarotzen ditut.

M.A.: 14an izaten da giro onena, 15ean gutxiago, eta 16an lagunarteko bazkaria egiten dugu. Egun horiek dira, agian, onenak.

E.A.: Hilaren 18ra oso nekatuta iristen gara, eta gauerdarako etxera joan behar izaten dut askotan. Nahikoa eginda, eta eman beharreko denak emanda.

Aurtengorako gogoz?

I.A.: Andre marietarako gogoz beti.

M.A.: Bai bai, hor izango gara. Anima daitezela azkoitiarrak herri bazkarira.

E.A.: Festarako beti, eta herri bazkarian ere izango gara aurt-

Ostatua 50 lagunentzat.
Talde desberdinetara moldatzen gara.
Otorduak, lanerako espazioak...

abaraxka
ATERPETXEA
Taldeetara egokitutako espazioa

679 46 44 73 | info@abaraxka.eus

ondo pasau andramaxek!

AMALUR
ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Julio Urkixo, 13 BIS • AZKOTIA • 943-85 12 05

**ZERBITZU INFORMATIKO INTEGRALA
EMPRESA ETA PARTIKULARRENTZAT**
Konponketak, mantenimendua, asistentzia tekniko
Inzidentzien aurrean erantzun azkarra!

ALDAKO

ondo pasau andramaxek!

Kale Nagusia, 46 • Azkoitia • 943-08 36 14 • 629 09 92 76
informatika@aldako.es

Namasté
ILEAPAINDEGI ORGANIKOA

Ondo pasau andramaxek!

Trino Uria Kalea, 5, behea • 20720 Azkoitia, Gipuzkoa • 624 01 09 30

IZPI OPTIKA
Optometria + Audio zentroa

IKUSI, IKASI ETA ONDO ENTZUN

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Julio Urkijo Hiribidea, 8 • AZKOTIA • 943-85 25 11
info@izpioptika.com • www.izpioptika.com



Iazko Esne Beltza taldearen kontzertuko irudi bat.

AGENDA

Abuztuak 14, osteguna

12:00. Andremarien hasierako txupinazoa, plazan, azokako eragileen eskutik. Musika Bandak *Ondo pasau Andramaixek* joko du, eta gero, *Azkoitia* abestuko dute Parrokiako Abesbatzak eta Iraurgi abesbatzak, Musika Bandaren laguntzarekin.
12:30. Azkoitiko, Txantreako eta Buztintxuriko erraldioen eta buruhandien kalejira.

17:00. Haur parkea, Balda plazan.

19:00. *Artistas del gremio* musika kale ikuskizuna.

19:50. Udal ordezkariak korporazioan joango dira parrokiara, Txalkor txistulari taldeak lagunduta, *Alkate soinua*-ren doinupean.

20:00. Herritarrek Ignacio Busca Sagastizabalen *Salbea* eta Aita Nemesio Otañoren *Ave Maria* abestuko dituzte parrokiari, zazpi eta bost ahotsetara, hurrenez hurren.

23:00. Süne abeslariaren kontzertua, herriko plazan.

23:30etik 02:30era. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz murrizteko eta genero erasoaren aurkako babesgune zerbitzuak, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 15, ostirala

09:30. Zubiondo gaiteroen kalejira.

10:00. Udal Musika Bandaren eta Txalkor txistulari taldearen kalejira.

10:50. Udal ordezkariak korporazioan joango dira parrokiara, Txalkor txistulari taldeak eta Musika Bandak

lagunduta, *Alkate soinua*-ren doinupean.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Erraldioen eta buruhandien kalejira, Zubiondo gaiteroekin.

13:00. Udal Musika Bandaren eta Txalkor txistulari taldearen kontzertua, Kontzejupean.

17:00. Pilota partidak, Gurea pilotalekuan. Caixabank Masters Txapelketako partida jokatu dute Peña II.ak eta Gaborindok Senarren eta Tolosaren kontra, eta Altuna III.ak eta Imazek Zabalaaren eta Mariezkurrena II.aren aurka.

17:30. Simulagailuak eta Txiki Chef, plazan.

19:00. Magia poteoa.

19:30. Markeliñe konpainiaren *Artiluso* kale ikuskizuna, Balda plazan.

20:00. Azkoitiko gimnastika

erritmiko taldearen erakustaldia, parrokiaren aurrean.

20:00. Zubiondo gaiteroen kalejira.

22:00. Film Laburren XIII. Lehiaketako lanen emanaldia eta sari banaketa, plazan. Aurtengo gaia *Eta gertatuko balitz* zer... da.

Ondoren, Hits Cover Banda taldearen kontzertua, plazan.

Abuztuak 16, larunbata

09:30. Zubiondo gaiteroen kalejira.

10:00. Txalkor txistulari taldearen kalejira.

10:50. Udal ordezkarien korporazioa parrokiara, Txalkor txistulari taldeak lagunduta, *Alkate soinua*-ren doinupean.

11:00. Meza nagusia.

11:30. Erraldioen eta buruhandien kalejira.

12:15. Aurreksua, plazan.

13:00. Udal Musika Bandaren eta Zubiondo gaiteroen kontzertua, Kontzejupean.

16:00. Udara Caixabank Txapelketako emakume pilotarien partidak, Gurea pilotalekuan.

17:00. Ur parkea, Balda plazan.

19:00. Euskorleas taldearen kalejira.

19:00. Muxikoak, eliz atarian, Patxi eta Konpainiarekin.

23:00. Suzko erroberak, Zaragozana etxearen eskutik.

23:30. Merina Gris taldearen kontzertua, plazan.

23:30etik 02:30era. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz murrizteko eta genero erasoaren aurkako babesgune zerbitzuak, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 17, igandea

09:00etatik 10:00etara.

Azkoitiko Kultur Elkartearen 42.



masailaria
TooLa
943 85 25 90

ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!

JANDONIANIZ KALEA, 6, 20720 AZKOITIA, GIPUZKOA • 943-85 25 90



GAZTE ASANBLADAREN EGITARAUA

Abuztuak 14, osteguna

11:00. Txupinazo alternatiboa, San Martindik.
12:00. Txosnen irekiera.
17:00. DJ *pintxada*: The terror 4, Charles Ramirez, Andrew Car, Albi, Anthony Pern, Murxi eta Anti X.

Abuztuak 15, ostirala

18:00. Txosnen irekiera.
19:00. Kontzertuak: Iltze, Labankada, Ostikoka eta Derrumbe.

Abuztuak 16, larunbata

Gazte Eguna, jantzi ezazu Azkoitiko Gazte Asanbladaren kamiseta.
12:00. Grafitti eta DJ tailerrak.
14:30. Gazte bazkaria.
Ondoren, asanbladaren ibilbideari eta erronkei buruzko hitzaldia eta Palestinari elkartasuna adierazteko argazkia.
18:30. Karropoteoa, txosnetatik abiatuta.
19:00. Kontzertuak: Xaribari, Hauek eta Tzunba.

Abuztuak 17, igandea

18:00. Mus txapelketa.

Abuztuak 18, astelehena

12:30. Kuadrillen arteko jolasak.
23:30. Kontzertuak: 48280, Maro and Gabigas, Check-Boyz eta Ezohi.
Ondoren, txosnen azken orduan, *Happy Hour*.

(Egitarau honek aldaketak izan ditzazke; egunera-tutako informazioa @azkoitiko_ga Instagram kontuan)

Inazio Iriarte margo lehiaketarako zigilu jartzea, Portaleburu erakusketa aretoan. Lanak 14:00etatik 15:00etara bitartean jasoko dituzte toki berean.
09:30. Herriko trikitilarien eta dultzaineroen kalejira.
09:30. Gipuzkoako XIII. Blonda Txapelketa eta ganadu erakusketa, Plazaberrin.
11:00. Herriko trikitilari gazteen kalejira.
12:00. Erraldioen eta buruhandien kalejira, Txalkor txistulari taldeak lagunduta.
12:00. Herri kirol jaialdia, plazan.
12:30. Jubilatuen meza, parrokian.
14:30. Jubilatuen bazkaria, Elkarguneko Herriko Plaza aretoan. Bertan, aurten 90 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko dituzte.
16:00. Bizijolas, Gaztaneneako parke estalian.

18:00. Bikote Gazteen Dantza Suelto Txapelketa, Balda plazan.
19:30. 42. Inazio Iriarte margo lehiaketaren sari banaketa, Portaleburun.
22:00. Enaitz eta Erkizia bikotearen erromeria, Balda plazan.
23:00. Suzko zezena, Balda plazan.
Ondoren, Enaitz eta Erkizia bikotearen erromeriak jarraituko du.

Abuztuak 18, astelehena

11:00. Kale atletismo erakustaldia.
12:00. UK03 txaranga, herrian zehar.
14:30. Herri bazkaria, plazan.
16:30. Skapaie elektrotxaranga, kaleetan.
17:30. Apar festa, Balda plazan.

18:30. Zezenak, Plazaberrin.
19:30. UK03, herrian zehar.
21:30. Tapia eta Leturia taldearen kontzertua, plazan.
Ondoren, suzko zezena, herriko plazan.
21:00etatik 00:00etara. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz murrizteko zerbitzua, parrokiaren aurrean.
00:15. Brincadeira batukadaren *Glowdrums* ikuskizuna, kaleetan.
22:30etik 01:30era. Sexubizi Gune Morea. Informazio, aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes gunea, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 19 eta 20, asteartea eta asteazkena

22:00. XV. Diva Sat idi dema saria, Gurea pilotalekuko probalekuan.

Banatzaile ofiziala

LARRAMENDI

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

MILAR

* Informazio gehiago miele.es/20años helbidean



Joseba
JATETXEA

AIZKIBEL KALEA, 10 • AZKOITIA • 943-85 34 12

*ondo pasau
andramaixek!*



Azokaren izena eta izana direnak, festen txinparta piztera

Aurten 120 urte dira Berdura Plaza kokatzen den eraikineko obrak amaitu zituztela, eta justu 100 urte, ibai gaineko eraikinaren proiektu osagarria landu zutela. Data bereziak ospatzeko, Mila Gorostegik eta Zumeta baserriko Irati Amianok piztuko dute jaien hasierako suziria.

KOXKI
eraikuntzak - construcciones

📍 Auzmendi bidea, 58 - AZKOITIA
✉️ koxki@koxkieraikuntzak.com
☎️ 640 394 636 / 640 559 310

ERA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK ETA ERABERRITZEAK
Ondo pasau andramaixak!



GRIETA Street Style

Kale Nagusia, 65
943 85 29 27
info@grieta.es
grieta.es

ondo pasau andramaxek!



ETXE AITZ

Kale Nagusia, 73
943-85 17 13
AZKOITIA

**ondo pasau
andramaxek!**



nho

ainhoa etxaniz estudioa
barneen diseinatzailea

julio urkijo, 6 • AZKOITIA
943-85 09 73 • 669 92 24 58
nho@nhoestudio.com
www.nhoestudio.com

Ondo pasau andramaxek!



ondo pasau andramaxek!

943-85 19 66 farmaciamediola@gmail.com
Kale Nagusia, 13 • Azkoitia



Aingeru
loradenda

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Guardia Kalea 4, Azkoitia • Tel.: 943-08 37 54 - 688 81 33 46



Garia eta beste ale batzuk erosi, saldu eta biltegiatze-ko erabiltzen zen eraikin publikoa da alondegia, nahiz eta denborarekin beste merkantzia batzuetarako ere erabili izan den. Leku batzuetan, prezioak kontrolatzeko eta elikagaiak banatzeko erabiltzen zen, batez ere eskasia eta, beraz, gosete garaian. Azkoitiko kasuan, guneko hori udaletxearen aurreko eraikina zen, baina leku eta espazio falta zela eta, Torre Zuri etxea erostea erabaki zuen udalak, alondegi berria han kokatzeko; eskolak eta azoka bilduko zituen eraikina izan zedin.

Manuel Etxabe arkitektoak diseinatu zuen eraikin berri hura XX. mendearen hasieran.

Urte batzuk geroago, ordea, plaza horren espazioa handitzea aztertzen hasi ziren, ibaia-zen zati bat estaliz.

Ordutik, gaur egungo eraikina da herriko Berdura Plaza. Baina urte horietan guztietan hamaika eraberritze, moldaketa eta prozesu bizi izan ditu eraikinak. Garrantzitsuenetarikoa azken hogeitaz urteetan izan dira: 2009an, adibidez, eraikinaren fatxada konpontzeaz gain, salerosketa gunea ere berritu zuten.

Azoka biziberritzeko asmoz, berriz, plan integrala aurkeztu zuen udalak 2021ean. Dokumentuak azokaren eredu propioa garatzeko bide orria markatzen zuen, eta hori guztia aurrera eramateko lan mahaia osatzea proposatu zuten. Urte horretan bertan eratu zuten taldea ekoizleen ordezkari-

kin, Urkome landa eremuen garapenerako elkartearekin, Herrixen merkataritza elkartearekin eta udal ordezkari eta teknikariek.

Behin egoeraren diagnostikoa izanda, lan mahaiaren egitekoa izan zen aurrera begira eman beharreko pausoak lehenestea eta aktibatu beharreko ekintzak zehaztea. Diagnostikoak azokaren indarguneak eta ahuleziak azaleratu zituen, eta gunea biziberritzeko bost ardatz finkatu zituzten: azpiegiturak, azoka komunitatea eta komunikazioa, dinamizazioa, etorkizuna -erreleboaren eta lehiakortasunaren ikuspegitik- eta gobernantza. Orain arteko lanketa Azkoitiko azoka Gipuzkoako Azoken Sarean sartzearekin batera hasi zen, eta Urkome atxikita dagoen Landaola elkartearen, Erika



fundazioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiararen eta udalaren artean egin da.

Bestalde, 2024an azken eraberritze lanak egin zituzten eraikinean. Jarduketa horietan hainbat lan gauzatu zituzten: batetik, estalkia berritu zuten, sabaiko fibrozementuzko plakak erretiratu zituzten eta egurrezko egitura duen estalkia jarri zuten. Halaber, kanpoko ate metalikoak pisu izugarria zenez, erdi irekita egon ohi zen, aire korrontea sortuz. Horregatik, lau sarrera nagusietan gidaridun ate automatikoak jarri eta barne atondoak eraiki zituzten.

Ateez gain, instalazio elektrikoak eta luminariak berritu zituzten LED argiteria jarrita, eta pintaketa lanak ere gauzatu zituzten. Irisgarritasunari

dagokionez, Ibaiondo kaletik sartzerakoan, bi maila zeuden aurrez, eta horien orde, arrapalak jarri zituzten.

Errekauek

Azken urtean, berriz, aro digitala iritsi da Berdura Plaza- ra, Errekauek proiektuarekin. Maiatzean abiatu zuten egitasmoari esker, ekoizleek bezeroen gaur egungo beharretara egokitzeko erraztasunak dituzte. Izan ere, azokara edota saltokietara hurbildu ezin duten bezeroei bertako produktuak kontsumitzea ahalbidetzen die zerbitzuak, etxean edo kontsignan jasotzeko aukera emanez.

Zerbitzua egunero eta 24 orduz dago martxan. Nolanahi ere, eskaerak telefono dei bidez egiten dituztenek honako ordutegi honetan egin behar

dituzte: goizez, 08:00etatik 09:00etara, eta arratsalde, 15:00etatik 16:00etara.

Eskaerak jasotzeko ordutegi bat ere zehaztuta du zerbitzuak, herritarrek dituzten beharretara egokituz. Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan goizez jaso ditzakete herritarrek eskaerak etxean, eta astearteetan eta ostegunetan, arratsalde. Erosketak Berdura Plazako kontsignan jaso nahi dituztenek, oster, 06:30etik 21:30erako tartea dute egunero. Produktuak saltokian bertan jaso nahi dituztenek, berriz, haren ordutegira egokitu behar dute.

Aldaketa horiek guztiek hobekuntzak ekarri dituzte eraikiner; hala uste du, behintzat, Otzarreta harategiko Joxean Lizarralde: «Hobekuntzak egin dira, eta hori oso ondo

ARANBARRI

drogeria

☎ 943-85 14 37

Kale Nagusia, 31 · Azkoitia

ondo pasau andramaxek!

DISEINU ETA INPRIMATZEA
gure kontul

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!!

📍 Inazio Iriarte, 1 📞 943 85 20 52 📧 fk@fkgraf.com 📱

AZKOITIKO BATZOKIXE

JULIO URKIXO, 11 20720 AZKOITIA · 943-85 73 32

ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!

Giroitze

KLIMATIZAZIOA

943-85 02 84
girotze@girotze.com
www.girotze.com

Juin Txiki industrialdea, 5 · Azkoitia 20720

ondo pasau andramaxek!

DISEINU LANAK

GUKA ZERBITZUAK

www.gukazerbitzuak.eus



dago, baina horrek langile gehiagoren falta ekartzen du asteburuetakako ordu horiek egiteko. Gazteak horretan has-tea gustatuko litzaidake. As-koz erosoagoa da orain azoka, ate berriekin ere beroagoa da, neguan hotza da eta. Saltzaile gazteak behar dira, erreleboa falta da. Ez da lan erraza: as-teburuak, ordu asko... Baina etorkizuna ez dut horren bel-tza ikusten, Azkoitiko Berdura Plaza beti mantenduko dela-koan nago».

Izan ere, plaza hori beti izan-go da berezia, eta beti eskaini-ko du produktu berezia: «Ber-tako produktua eskaintzen du Berdura Plazak, eta gure kasuan, adibidez, etxean ha-zitako txahala eta aurrez guk prestatutako jakiak saltzen di-tugu. Berdura Plazak hori du ona, dena bertakoa eskaintzen

duela. Poliki-poliki saltoki eta ekoizle berriak hasi dira bertan lanean, baina denen produktua bertakoa da. Eroslez ere ondo dabilela esango nuke; agian, astean zehar gutxiago ibiltzen da. Ostiraletan jende asko, eta zapatuetan ikaragarria izaten da. Asko nabari da gazteek ez dutela batetik bestera mugit-zeko ohiturarik erosketak egi-teko».

Urteurreneko txupinazoa

Eraikinaren historia guztia errepasatuz, beraz, aurren 120 urte dira Berdura Plaza ko-katzen den eraikineko obrak amaitu zituztela, eta justu 100 urte, ibai gaineko eraikinaren proiektu osagarria landu zela. 1903an Manuel Etxabe arki-tektiko donostiarrak egin zuen eraikinaren proiektua, gero-ra azoka, alondegia eta esko-

lak hartuko zituen. 1905ean amaitu zituzten obrak, Nicolas Unanue azpeitiarraren esku-tik. 1925ean, berriz, eraikina handitzeko proiektua egin zuen Tomas Bilbao arkitek-to bilbotarrak, eta Odon Prat Bellveure katalan-azpeitiarra arduratu zen lanak gauza-tzeaz.

Data bereziak aintzat hartu-ta, Azkoitiko jaien txupinazoa botatzeko ardura izango dute azokako baserritarrek eta sal-tzaileek. «Abuztuaren 14an, udaletxeko balkoian izango dira azokari izena eta izana ematen dizkieten postuen sus-tatzaileak. Herriari eta herri-tarrei egiten dieten ekarpena eta ematen dieten zerbitzua eskertzeko eta aitortza egiteko baliatuko dugu jaiei ongieto-rria emateko unea. Azoka toki berezia izan da beti, solasera-

ko, trukerako, denbora parte-katzeko. Azokako lan mahaia-k adostu du, denen izenean, nortzuek botako duten txupi-nazoa. Mari frutategia zeneko Mila Gorostegik eta Zumeta baserriko Irati Amianok piz-tuko dute suziria; nagusienak eta gazteenak, alegia. Izan ere, azokak atzera eta aurrera be-giratzeko aukera eskaintzen digu», adierazi du Azkoitiko Udalak.

Ilusioz

Amiano gazteak «harrituta» baina «ilusioz» jaso du txupi-nazoa jaurtitzearen albistea: «Ez nuen espero baserritarrei eta ekoizleei ematea txupina-zoa botatzeko ardura, baina gustura hartzen dira horrela-ko berriak. Ilusioa egiten du». Amiano 16 urterekin hasi zen Berdura Plazara joaten, amo-

narekin eta amarekin batera, eta egungo egoera «ondo» ikusten duen arren, «hobe-tu» daitekeela uste du. «Gaur egun, ordea, oso ondo egoki-tuta dago eraikina, eta herri-tarrek ere oso ondo erantzun dutela uste dut». Amiano beti izan da baserritar gaztee-na, eta horri lotuta, «arraro» sentitu izan dela onartu du: «Egoera aldatzen ari da, eta gero eta gazte gehiago hasi dira baserriko lanetan. Alda-keta nabari dut, baina gehia-go nabaritzea nahiko nuke. Gaizki ikusitako lana izan da beti baserrikoa: eguraldiaren menpe ibili behar da, oso lo-tua da, etorkizun zehatzik ez du...». Dena den, gauza bat argi du: «Gustatu egin behar zaizu baserria; niri gustatuko ez balitzait, ez nitzatekeen ho-netan arituko».



Herrietatik sortutako
komunikazio taldea gara,
gure komunitateaz
jarduten dugu,
gure begiekin, gure erara,
gure hizkuntzatik:

GUKA
gara




SOFIA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Ibai Ondo 18
20720 Azkoitia. Gipuzkoa
Tel./Fax.: 943 85 17 57
mje@sofia-studio.es
www.sofia-studio.es

SIB





«Ilusio berezia egiten dit kontzertua Azkoitiko plazan emateak»

Süne Abeslaria

‘Amaineman’ izena du Josune Arakistain (Lastur, Gipuzkoa, 1996) abeslariak Süne izenarekin kaleratu duen lehendabiziko bakarkako lanak. Iazko urte amaieran ikusi zuen argia diskoak, eta abuztuaren 14an Azkoitiko plazan aurkeztuko du, 23:00etatik aurrera.



EROSKI

zurekin

kalitate onena
prezio onenean

ondo pasau andramaxek!



GE S.A. **GONZALO ESCARTIN, S.A.**
Instalazio elektrikoak eta telekomunikazioak

Ondo pasau andramaxek!

Juin Txiki industrialdea 6. zenbakia
20720 Azkoitia
Tel. 943-85 24 56

herrixen
azkoitiko dendaiek

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

INTZA
LUBRICATION SYSTEMS

ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!

1ziar
ARRAINDEGIA

943-85 25 59
Ibai-Ondo Kalea, 24
20720 Azkoitia

ondo pasau andramaxek!

graphic's
graphic's

www.graphicsazkoitia.com

*Ondo Pasau
Andramaxek!!*

Izan al zara inoiz Azkoitiko Andre Maria jaietan? Ezagunak al zaizkizu festak?

Txikitatik ezagutzen ditut Azkoitiko andremariak. Izan ere, ama azkoitiarra dut, eta, beraz, alde horretako familia-koak bertan bizi dira. Txikitatik joan izan naiz Andre Maria festetara, ez parranda egitera, baina gogoan dut oraindik Caritasek jartzen zuen tonbolara joaten ginela txartel batzuk erosi eta ea zortetik genuen ikustera. Egun batzuk Azkoitian pasatzen genituen.

Azkoitian eskainiko duzu kontzertua abuztuaren 14an, andremarietako egitarauaren barruan. Lehendabiziko aldia izango al duzu Azkoitiko plazako oholtzan?

Huntza taldearekin izandakoa naiz Azkoitian kontzertua ematen; urtea ez dut gogoan, baina duela hiruzpalau urte izan zela esango nuke. Orain, baina, bakarka aritu-

ko naizen lehendabiziko aldia izango da.

Lotura zuzena duzu herriarekin, zure ama bertakoa baita. Berezia izango al da zuretzat Azkoitiko kontzertua? Familiakoen eta gertukoaren aurrean abestu behar izateak ardua berezia sortzen al dizu?

Bai, berezia izango da, dudarik gabe. Horrelako kasuetan, gertukoak publikoan daudela dakidanean, errespetu handiagoa ematen dit kontzertua eskaintzeak. Jende ezaguna egon ohi da begira, eta haien iritziek axola didate. Badakit dena ederra irudituko zaiela, baina horrek ez du kentzen nik neure buruari jartzen diodan presioa. Bi gauza desberdin dira. Baina egia da, era berean, ilusio berezia egiten didala kontzertua Azkoitiko plazan emateak; Huntzarekin ilusioa egin zidan, eta orain ere gauza bera sentitzen dut. Ea nola joaten den!

Bakarkako lehen diskoa kaleratu zenuen iazko urtearen amaieran. Nola deskribatuko zenuke 'Amaineman' izeneko lana?

Izenburuak dioen bezala, amain eman egiteko diskoa da; hau da, zeure burua eramaten uztekoa. Hori da *amain eman* esamoldearen esnahia. Diskoa egiterakoan ez nintzen itxi estilo jakin batera, eta ez nintzen lotu Huntzatik zetorren ideiara. Saiatu nintzen nahi nituen soinuak bilatzen eta ateratzen zena atera zedin uzten; hala sortu zen 'Amaineman'. Sortu genituen abestiak bildu nituen disko horretan.



«Gogoan dut oraindik Caritasek jartzen zuen tonbolara joaten ginela»



**Estilo jakin batera ez zenue-
la lotu nahi esan duzu, baina
trikitia eta elektronika dira
diskoaren oinarriak; biak uz-
tartu dituzu lanean. Zergatik
bi estilo horiek? Ez dirudite
ondo lotu daitezkeen bi estilo
direnik...**
Nahiz eta hasiera batean uz-
tartzeko zailak izan daitez-
keen bi estiloak, oso natural
atera zait. Lasturkoa izanda,
beti izan dut presente trikitia.
Nire historia laburrean, triki-
ti txapelketetan parte hartu
izan dut; gero, Huntza sortu
genuen, eta talde hartan ere
trikitia zen ardatz nagusia.
Ama hizkuntza euskara dudan
bezala, nire ama instrumen-
tua trikitia dela esan dezaket;
instrumentu horrekin sortzen
dut. Niretzat familiako ins-
trumentua da trikitia. Horrez
gain, betidanik gustatu zait
musika elektronikoa. Itziar
inguruko gazteok badugu Txi-
txarrok utzi zuen herentzia

hura, eta beti izan dugu pre-
sente musika elektronikoa.
Hala, oso natural atera zait bi
estiloak nahastea.
**Zer moduzko ibilbidea egi-
ten ari da diskoa? Zer-nolako
erantzuna jaso du?**
Egia esan, oso ondo ari da fun-
tzionatzen. Banuen beldurra;
azkenean, Huntza bezalako
talde bat atzean utzi genuen,
hain ondo funtzionatu zuena,
eta orain, bat-batean, bakar-
ka hastean, nork zekien zer
harrera izango zuen proiektu
berriak. Batzuei oso ondo joa-
ten zaie aldaketa; aldiz, beste
batzuek ez dute zorte bera iza-
ten. Ez nenkien nire kasuan
zer gertatuko zen, eta hankak
lurrean izan ditut zentzu ho-
rretan. Oraindik ere halaxe
izaten jarraitzen dut, bai-
na, egia esan, harrituta nago
proiektu berria plazetan, he-
rrietan eta kontzertuetan iza-
ten ari den erantzunarekin.
Oso gustura nago.

**Izan ere, Huntza taldearen
arrakasta handia izan zen. Zer
litzateke zuretzat arrakasta
orain? Huntzak izandakoa
errepikatzea, adibidez? Edo
non dago zure muga?**
Diskoa sortzen hasi nintze-
nean, nire lehenengo helbu-
rua Huntzarekin ahalik eta
gutxien konparatzea zen. Nire
ibilbide propioa zen hasi behar
nuena, beste proiektu bat, eta
helburua ez zen Huntza iritsi
den lekura iristea. Nire ibil-
bidea egin nahi dut, eta nire
abestiekin eta egiten ari nai-
zen guztiarekin noraino heldu
naitekeen ikusi.
**Azkoitiko kontzertura berta-
ratzen direnek zer ikusi ahal-
ko dute?**
Nire ibilbide eta proiektu pro-
pio hori bertatik bertara ikus-
teko aukera izango dute, eta
aurtengorako prestatuta du-
dan ikuskizunaz gozatu ahal
izango dutela uste dut. Beraz,
etor daitezela.




ESTHER GERETA FARMAZIA

Jandonianiz Kalea 7-Azkoitia
943-85 12 35 • 641 288 401
@geretafarmazia

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



MAPFRE AZKOITIA

JOAQUIN eta IGOR ISUSQUIZA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



Julio Urkijo, 20 - 20720 AZKOITIA
943-85 14 61 • isusqui@mapfre.com



Kafetegia
Nagusia 80 • Azkoitia

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Kale Nagusia, 27 • AZKOITIA • 943 85 72 34



MONTAJES
LAIZOLA S.L.
AROTZERIA METALIKOA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Ugarte Industrialdea, 23, Azkoitia • Tel.: 943-85 20 12 - 943-85 33 75

SAREEN MUNTAIA
KONPONKETAK
TPV/FAKTURAZIO SOFTWAREA
INFORMATIKA EKIPOEN SALMENTA
SEGURTASUN ETA MANTENU ZERBITZUAK

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA 88 • AZKOITIA • 943 02 64 28
www.etkinformatika.com • etk@informatika.com

fra kun

ondo pasau andramaxek!

943-08 30 32 • Kale Nagusia 81 - AZKOITIA

ARRIETA

ARRIETA
DOITASUNEZKO MEKANIZAZIOA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Juin Txiki Industrialdea, 1-2-3 - Azkoitia • 943-85 26 93 • arrieta@talleresarrieta.com

aholkulariak
UNANUE
ZERGAK | LABORALA | AUDITORETZA | ENPRESA ETA AUTONOMOAK

ondo pasau andramaxek!

Kale Nagusia 58, AZKOITIA 20720 | Enbiera kalea 6, ZUMAIA 20750
943-85 07 69 | 943-86 09 60



Dantza sueltoa, guztien gozamenerako

Euskal dantzak errotuta daude, eskualdean orokorrean, eta herrian zehazki, eta horren erakusle da Azkoitiko Balda plazan egiten den txapelketak ikusle ugari biltzen dituela urtero-urtero.



Andre Maria festen barruan, hamai-ka ekintza eta ekitaldi antolatzen dituzte udalak eta herriko eragileek. Bost egunetan atsedetik gabeko egitaraua izan ohi dute azkoitiarrek. Eta bada urteroko egitarauan bere lekua egina duen hitzordu bat: jaien lau- garren egunean, abuztuaren 17an, egin ohi den dantza sueltoko txapelketa. Hitzordu hori

Azkoitiko Udalak eta Gipuzkoako Dantzarien Biltzarrak antolatzen dute elkarlanean. Euskal dantzak errotuta daude, eskualdean orokorrean, eta herrian zehazki, eta horren erakusle da urtez urte Balda plazan egiten den txapelketaren bueltan elkartzen den ikus-entzule kopurua. Dantza sueltoko txapelketak 80. hamarkadatik egiten dira Azkoitian. Hala azaldu du Anton Mendizabal Gipuzkoako Dantzarien Biltzarreko dan-

tza sueltoko koordinatzaileak: «Gutxienez 80ko hamarkadatik ospatu izan dira txapelketak Azkoitian. Azken urteetan txandaka antolatzen dira; urte batean helduena egiten da, eta hurrengoan, berriz, gazteen mailakoa. Dantza sueltorako tradizio handia izan da beti Azkoitian, eta historikoki dantzari bikote ugari izan dira herrian». Hori horrela izanik, andremarietako hitzordua fin-ko bilakatu dela gaineratu du

ERLOJUTEGIA *Gonzalo* BITXITEGIA



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Kale Nagusia, 11 · 20720 Azkoitia · 943-85 24 93

taberna **zur**

ondo pasau andramaxek!

KALE NAGUSIA, 68 - AZKOITIA • 943-85 12 75

SANTIKUA
BELARDENDA



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA, 28
943-85 13 40

telepizza

 C/ Julio Urkixo, 40 Azkoitia  C/ Iparragirre Kalea 4, Urretxu

 943 10 54 00  943 10 10 33

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

 **ORMOLA**
moulding solutions

ondo pasau andramaxek!

www.ormola.com
ormola@ormola.com
943-85 13 00
Basarte area aldea 5 zbk, Azpeitia



Mendizabalek: «Inoiz ezin da esan egonkortutako lehiaketa denik, baina esan dezakeguna da udalak txapelketaren antolaketa-erakikiko konpromiso handia erakutsi izan duela beti, urtero nahi izan duela txapelketa antolatu. Beraz, finkoa bada hitzordua, urtero andremarietako egun eta ordu bererako antolatzen delako: abuztuaren 17an izaten da, 18:00etan».

Antolaketa buru-belarri

Aurtengoan, bikote gazteen txanda izango da. Azkoitiko Udalak prestatzen ditu txapelketaren oinarriak, eta gero, Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra arduratzen da antolakuntzaz. Egunotan, oraindik ere, antolaketa murgilduta jarraitzen du elkarteak. Izan ere, izena emateko epea hilaren 11ra arte izango da zabalik. Hain zuzen, hurrengo igandean Azkoitian egingo duten txapelketa irekia da, eta nahi duten bikoteek eman dezakete izena. Egunkari berezi hau egin zenean, artean, bi bikote soilik zeuden txapelketarako izena emanda: Andoingo eta Pasai Donibane Irati Larrañagak eta Danel Castillok nahiz Irati Aranguren eta Beñat Mendizabal azpeitiarrek.

Txapelketa irekia bada ere, badira partaideek bete behar dituzten irizpide batzuk, Estibalitz Iturria elkarte koordinatzaileak azaldu duenez: «16 urte baino gutxiago izan behar dituzte partaideak, eta guztira, hamabi bikotek parte har dezakete. Gainera, lehiatzeko horiek derrigorrezkoa dute usadiozko jantzia soinean eramatea».

Txapelketaren egunean epaimahai bat ariko da dantzarien lana baloratzen, eta aditu horiek lau ezaugarri hartuko dituzte kontuan erabakia hartzerakoan. Batetik, atal teni-

koari dagokionez, pausoak eta gorputzaren nahiz espazioaren erabilera hartuko ditu aintzat; eta bestetik, alde artistikoa eta erritmoaren zein doinuaren interpretazioa.

Txapelketa irabazten duen bikoteak 180 euro, garaikurra, txapela eta zapia eskuratuko ditu, eta bigarren sailkatzen denak, berriz, 160 euro eta garaikurra. Halaber, hirugarren egiten duen bikoteak 150 euro eta garaikurra irabaziko ditu. Bestalde, saririk jasotzen ez duten bikote guztiek 110 euro jasoko dituzte, laguntza gisa.

Azkoitiko txapelketan dan-

tzan aritu izan diren bikote asko ezagunak izan dira ikusleentzat: izan ere, herriko hainbat eta hainbat dantzari lehiatu izan dira edizioz edizio. «Azken urteetan herriko bikote gutxi izan diren arren, Azpeitiko ordezkaritza gorakada nabarmena izaten ari da», azaldu dute antolatzaileek.

Gatza eta piperra

Abuztuaren 17an Balda plazara gerturatzen direnek –eguraldi txarra egiten badu Baztartxo antzokian egingo dute–, beraz, euskal dantzen ikuskizunaz gozatzeko aukera izan-

go dute beste urte batez. Giro ederra ziurtatuta izango dela esan dute Gipuzkoako Dantzarien Biltzarreko arduradunek, Azkoitian eta Urola Kostan dantzarako zaletasun handia baitago. «Bereziki Azkoitian eta Azpeitian gustukoak dira euskal dantzak, eta bi herri horietan antolatzen diren txapelketetan beti biltzen dira ikusle asko. Gainera, txapelketek beti izan ohi dute gatza eta piperra; txapelketek ikusleak erakartzen dituzte. Azkoitiko hitzorduan ere hala izango den zalantzarik ez dugu», esan du Iturriak.



grupo eibar
inmobiliario

WWW.IZARJAI.COM

Ondo Pasau Andramaixek!

AZKEN ATARIA IZKINAKO ETXEBIZITZEKIN SALGAI!!

Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua
2 edo 3 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak

Terraza zabalak etxebizitza guztietan, bista irekiak
Berogailua, zoru erradiatzale bidez · Guztiz hornitutako sukaldeak

PREZIOAK 320.000 €TIK AURRERA (BEZ gabe)

IzarJai

Bizigunea · Kurutzia · Azkoitia

Azkoitia

Kurutzia

AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: Julio Urquijo Etorbidea 30 · 618 614 541



comercial@grupoeibar.com · WWW.GRUPOEIBAR.COM · 943 31 66 11

Bergara
Gure **lorentxoko**
bizigune berria

Eibar
estaziño
ERAKINA

Deba
ih3
ilsas begi
ETXAKIA · AMILLAGA

Elgoibar
etxe gain
IK11
Bizigunea parkean

NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Iban Garcia /
Aurkezlea eta eduki sortzailea

Azkoitia

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.

GUKA

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa
uztailaren 15a baino lehen eta

***bazkidetza erdi prezioan
eskuratuko duzu.***

